

Hiribus zerbitzua indartuko da azaroaren 1ean

- **Hilerriko bisitaldiak erraztu asmoz, Hiribusak zerbitzua emango du goiz eta arratsaldez**
- **Garraio publikoa erabiltzeko deia luzatu du udal gobernua**

Andoainen, 24-10-28.- Datorren ostiralean, azaroaren 1ean, Domu Santu eguna ospatuko da herrian, eta horrekin batera, hilerrirako bisitak ugarituko dira.

Hori erraztu asmoz, Hiribus zerbitzua indartu egingo da; goizeko 9:00etan hasiko da zerbitzua Sorabillatik, 13:00ak arte. Hilerritik 9:40 irtengo da lehen zerbitzua, 13:40 arte. Arratsaldean, berriz, 15:00etan izango da lehen zerbitzua Sorabillatik, eta 18:00etan azkena. Hilerritik 15:40 irtengo da lehen autobusa eta 18:40 azkena.

Udal gobernua deia luzatu nahi die herritarrei garraio publikoa erabili dezaten.

